

IBARRAKO UDALAREN ETA GIMNASIA ERRITMIKOKO BELABIETA KIROL KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarran, 2024ko maiatzaren 8an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor Zapirain Lizarribar, Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarra Udaleko Idazkaria den Eider Esnaola Carrera lagunduta.

Eta bestetik, Laura Navascues Angulo andrea, 44171175C NAN zenbakiduna, gimnasia erritmikoko Belabieta kirol klubeko lege ordezkaria. Elkartearen egoitza soziala: Ibarra San Bartolome, 21 behean, IFK: B20582805.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarra Udalaren izenean eta ordezkaritza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Belabieta Kirol Klubaren izenean eta ordezkaritza, lehendakari gisa, 2018ko otsailaren 27ko Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak bere ebazpenean jasotakoaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- BELABIETA KIROL KLUBAK 2024ko urtarrilaren 17an Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez (2024/ 268 erregistroa), dirulaguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek, 50.000 euroko aurrekontua du klubaren jardunaren helburuak gauzatu ahal izateko. Jarduerak:

1. Ibarra Belabieta kiroldegian txapelketak eta topaketak antolatzeke:
 - B eta C mailako amateur kategoriakoak
 - Kurtso amaierako jaialdia.
 - Oinarritzko taldeen kontrolak antolatzea
2. Eskola adina, amateur maila eta oinarritzko jubenil taldeetako mailakoek txapelketetan zein ikustaldietan parte hartzeke
3. Prestakuntza eta formakuntza espezifikoak monitore eta entrenatzaileentzat
4. Klubaren jarduerak gauzatzeko ezinbestekoak direnak

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorriz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarako Udalaren **2024ko udal aurrekontuan 1 12.341.02.481.00 2024 partida** agertuko da, **12.000 euroko** zenbatekoarekin dirulaguntza izendun gisa, erakunde eskatzailearekin **2023 - 2024 aldirako** konpromisoa betetzeko

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, lege horren 25.2 artikulua udalaren eskumenen artean jasotzen du kirola sustatzea. Beraz, kontuan hartuta Belabieta Gimnasia Ritmika Klubaren helburu nagusia gimnasia erritmikoaren eta balletaren praktika herritarren artean bultzatzea dela, Ibarako Udalaren ahalmenen artean dago jarduera hori sustatzea.

VII.- Era berean, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 martxoaren 30eko Legearen 2. Artikulua printzipio gidariak zehazten ditu eta horien artean aginte publikoek, beren eskumen esparruaren **kirol-politikak** burutu behar dituela, besteak beste, kirol-elkarteak bideratzeko eta sustatzeko bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzeko eta babesteko ere.

VIII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21koa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean DOO).

IX.- Dirulaguntza izendun hau, Ibarako udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako Ibarako Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2024-2027) jasota dago (GAO, 76 zk, 2024ko apirilaren 19an), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozedurarik egingo dirulaguntza emateko.

X.- 466/2023 Alkate Dekretuari jarriki, dirulaguntza hau eta berori arautuko duen hitzarmena kudeatzeko organo eskuduna Alkatea izango da. Zuriketari dagokionean ere, Alkate dekretu bidez ebatziko da.

XI.- Hori dela eta, 2024ko maiatzaren 8a data duen 269/2024 Alkate-Dekretu bidez, Belabieta Kirol Klubari **12.000 euroko dirulaguntza** emateko hitzarmena sinatzea erabaki zuela.

XII.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarako Udalaren eta BELABIETA KIROL KLUB elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarako udalerriaren barruan honako arrazoiengatik:

- Herrian dagoen gimnasia erritmikoko eta balleteko klub bakarra delako.
- Herriko haur eta gazteen artean jarduera fisikoa sustatzen duelako
- Edozein dela hasteko adina, herrian bertan gustuko kirola egiteko aukera ematen dietelako
- Kirol-ibilbide osoa egiteko aukera eskaintzen duelako praktika honetan hasten direnentzat
- Genero desberdintasunik gabe parte-hartzera bultzatzen dutelako
- Herritarren artean zaletasuna sustatzen duelako.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

1. Ibarako Belabieta kiroldegian txapelketak eta topaketak antolatzeko:
 - a. B eta C mailako amateur kategoriakoak
 - b. Kurtso amaierako jaialdia.
 - c. Oinarrizko taldeen kontrolak antolatzea
2. Eskola adina, amateur eta oinarrizko jubenil mailako taldeek txapelketetan zein ikus-taldietan parte hartzeko
3. Prestakuntza eta formakuntza espezifikoak monitore eta entrenatzaileentzat
4. Klubaren jarduerak gauzatzeko ezinbestekoak direnak

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2023-2024ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **12.000 eurokoak** izango dira, eta honako banatuko da: partidaren kargura eta 12.000 € 2024ko 1 12.341.01.481.01 2024 udal

aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarako udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bera dituen dirulaguntzekin, edota beste sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete behar dute:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori bete dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatuko da, eta justifikazio-kontuan diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda xehatua jasoko da, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek **2023ko irailaren 1etik, 2024ko abuztuaren 30a arte** izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kirola eta Jarduera Fisikoko departamentuari, Ibarako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak III. Kapituluan xedatutakoaren arabera

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarako Udalaren Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko ekitaldian aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete eta lortu direla justifikatzeko, DLOren Erregelamenduan oro har eta, bereziki, 30. artikuluan eta Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren III. tituluko III. kapituluan aurreikusitakoa beteko da.

Dirulaguntza zurituko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea **2024ko irailaren 30ean amaituko da.**

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztuta, honen zenbatekoa dirulaguntzaren % **70 izango da, eta, gerora, gainontzeko % 30a, egindako gastua justifikatzen** duen Alkate dekretu bidez onartutakoan.

Beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da aurretik emandako dirulaguntzen zuriaketarako behar diren dokumentazio guztiak Ibarra Udalean aurkeztuta edukitzea

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Ibarra Udalak diruz lagundutako erakunde onuradunek erabiltzen dituzten komunikazio eta publizitate euskarrietan (karteldegia, web-orria, sarrerak, ikus-entzunezkoak, bitarteko elektronikoak...) babesle gisa agertuko da, Udalaren irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak barne. Era berean, ematen duen diru publikoaren araberako espazioaren eta tamainaren proportzionaltasunari eutsi beharko dio, batez ere, beste finantzaketa-iturri batzuekin batera agertu behar duenean.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotzen dituen gizarte, hezkuntza, kultura eta jolas ekitaldietan parte hartzeko.

Era berean, klubak erabiltzen dituen bere komunikazioko euskarrietan, publizitatean edo beste edozein formatuetan ezingo dute jarrera matxistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak, genero-aukerakoak, edo LGTBI+ kolektiboko pertsonen aurka bideratzen dituzten mezuak erabili, ez eta jarrera horiek babestu edota sustatzen dituztenak ere

Hamargarrena.- Euskararen erabilpena.

Zerbitzua ematean, errespetatu eta erraztu egingo da erabiltzaileek eta publikoak, oro har, euskaraz arreta jasotzeko eta erabiltzeko duten eskubidea. Elkarteak ahozko komunikazioetan euskara erabiltzera joko du, are eta gehiago, zerbitzuaren hartzaileak 18 urtetik beherako gazteak direnean euskara izango da komunikazio hizkuntza.

Mezu idatziei dagokienez (inprimakiak, oharak, kartelak, esku-programak, iragarkiak, jakinarazpenak...) euskaraz edo elebitan idatziko dira. Beti eduki bertsuak izan ohi dituztenak euskara hutsean izango dira (egunak, orduak, tokia...), eta elebitan egiten direnen kasuan, euskarari lehentasuna emango zaio, bai kokalekuaren aldetik, baita neurriaren aldetik ere.

Udalarekiko harremana euskaraz izateko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna

Klubak Ibarako udalean unean indarrean dagoen Berdintasun Planak ezarritako irizpideak errespetatuko eta sustatuko ditu, hala nola, ekintza positiboak bultzatzen

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, *“Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko”* Legearen testu bategina dioena

3/2007, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Lege Organikoa

Inolaz ere ez da onartuko klubeko kideen aldetik askatasun eta eskubide pertsonalen aurkako jarrerarik

Hau dela eta, dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute Ibarako udaleko inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak genero aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 7/2007 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Oro har, indarrean dagoen legeriak debekatzen dituen genero-diskriminazioak eta indarkeriak ezarri edota sustatzeagatik

Hamabigarrena.- Haur eta Nerabeen eskubideen alde eta indarkeriaren aurkako neurriak

Indarrean dagoen legediaren arabera, eta bereziki kirolaren eta jarduera fisikoaren esparruan xedatutakoa, neurriak hartuko dira haur eta nerabeenganako indarkeriaren kontra eta haien eskubideak babesteko. Hala - nola, honako legediak hartuko dira erreferentziazat:

- Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren 2/2023 martxoaren 30eko Legearen 2. Artikuluak printzipio gidarietan U atalean dioena

- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoak, bete beharko da, bereziki bere III Tituluko IX. kapituluaren dioena.
- 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena, bereziki, 36. Artikuluan eta VIII kapituluak dioena

Hamahirugarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena.- Kontrola eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzeta eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamabosgarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamaseigarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamazazpigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradun izateko DLOren 13.2 artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela egiaztatzeko, funtzionario publikoaren aurrean notario-adierazpena edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Hemetzortzigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemeretzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hogeigarrena.- Baimentzea.

Erakunde onuradunak berariazko baimena ematen dio Ibarra Udalari, hitzarmen honen bidez eskatutako dirulaguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein administrazio edo erakunde publikotatik.

Hogeita batgarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

ALKATEA

Igor Zapirain Lizarribar

BELABIETA KIROL KLUBA

Laura Navascues Angulo

Laura Navascues

1.

ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO	€
- Ibarrako udala - Gainontzekoak	

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra

Azalpena	kopurua
GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	
Pertsonal kontratuak denera	
Asistentziagatiko ordainagiriak denera	
Fakturak denera	
Tiketak erosketak (20 eurotik beherakoak) denera	
Beste administrazioetako erreziboak denera	
Tiketa, elkartearen lokalen erabilerarena	
Kilometrajea denera	
Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	



TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioako erreziiboak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, erreziibo eta Tiketetan, horiek burutzen dituen, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagirietan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.
5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objektua
7. BEZ-a: Faktura eta Tike ten kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturetan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketak

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolatan ere, prest nagoela Ibarako Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

XXXXXXXXXXXXX

Izena Abizenak.....XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX.....

Lekua eta data:n, 202...(e)koren(e)an

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarako Udala da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Sailera jo beharko da, helbide honetara: Euskal Herria kalea 44, 20400-Ibarra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ordainketak bideratzeko datuak

5

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO	
A	HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO
(1) NAN/IFZ DNI/NIF / (2) Izena eta bi abizenak / Societatearen izena Nombre y dos apellidos / Razón Social / Helbidea Domicilio..... Posta kodea Herria Código postal..... Población..... Herrialdea País.....	
B	BANKUAREN DATUAK DATOS BANCARIOS
(1) Bankua Banco (2) Agentzia Agencia (3) KD DC K/kontonbidea C/Cuenta (4) Jabea Titular OHARRA: Kontu kontonbidea (jabeak ez dion) hirugarrena bera betetzen da. NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.	
C	Bankuaren adostasuna Conforme banco Sinadura eta sigila Sello y firma
D	Hirugarrenaren adostasuna Conforme tercero Sinadura eta sigila Sello y firma
E	Gail edo Enplegatuaren onepena VP BP Opto. u Organismo Baimendutako sinadura eta sigila Sello y firma autorizada

Date / Fecha

3.-ERANSKINA

ASISTENTZIAGATIKO ORDAINAGIRI EREDUA. KIROL EKIMENAK

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KOPURUA

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
--------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura

ERANSKINA 4

ASISTENTZIAGATIKO ORDAINAGIRI EREDU OROKORRA EKIMENAK

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KOPURU GORDINA	% 15 PFEZ	JASOTAKOA ZUZENEAN

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
--------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura

ERANSKINA 5

GARRAIO GASTUEN JUSTIFIKAZIO EREDUA

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KM	KM 0,19 €	KOPURUA
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	

DATA	JARDUERA	TOKIA	PEAJEA/ PARKINA	KOPURUA

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
--------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDI10001-ritmika hitzarmena 23 24/ritmika hitzarmena 23 24 ()